

Euskal makila arma eta lanabes gisa usatua izan da. Baina egun sinbolo bilakatu da: mirespen eta laguntasunaren ezaugarri. Esanahi horrek makila egiteko prozesu bitxiarekin ere badu zerikusirik. Egun Hego Euskal Herrian artisaubakar bat bizi da lan honek emandako ogitik.

EUSKAL MAKILAK ORAINDIK GOGOR JOTZEN DU

Gizakia sortu zen une beretik, bere garapenari loturik egon da makila. Hala izan da mundu osoan eta baita Euskal Herrian ere. Leku eta erabilpen bakoitzak makilari ezaugarri bereziak ezarri dizkio. Horregatik hain zuzen, euskaldunon ohiko bastoiari euskal makila deritzo, eta ez bestela. Euskal makilak badituelako besteek ez dituzten hainbat ezaugarri eta esanahi.

Euskal makilak idientzat erabiltzen zen akuiluan omen du bere jatorria. Baina egun ibiltarien lagun eta aginte eta begirunaren ezaugarri bihurtu da. Horregatik euskal kanta, dantza eta jokuen protagonista bilakatu da. Eta horregatik, Euskal Herrian, kanpotik datozen bisitariak edota ohore egin nahi zaizen bertako pertsonen makila oparitzeko ohitura dago.

Makila eskuz egiten da. Eta egurra basoan mozten denetik makila sortu arteko

atal orok, bitxikeri ugari du bere baitan. Baina egun, Hego Euskal Herrian, makilak egiteak bizi den artisaubakarra dago: Iñaki Alberdi irundarra. Iparraldean, ordea, tradizioari utsi diote. Alberdik berak dioenez, «bertan errepretoa ez zelako Hegoaldean hainakoa izan». Alberdik bere tailerlean gordetzen duen makilik zaharrenak 1923ko data du, eta Gernikan eginkoa da. Zera frogatzen du horrek: gerra aurretik Hegoaldean bazegoela makila egilerik.

Labanaz azalean zauriak egin ondoren, bere izerdiaz sendatzeko gaitzen zuhaitz bakarra da mizpirondoak

MIZPIRAREN TATUAIK. Euskal makila, berez, mizpira egurrekin egiten da. Baina egun mizpira ez da apenas jaten eta

mizpirondoak moztu egin dituzte hainbat basotan, gero beste zuhaitz mota batzuk landatzeko. Horregatik maiz ordezkoak erabiltzen dira makila egiteko. Eta gaztainondoa da gehien erabiltzen denetako bat. Iñaki Alberdi artisaubakar egurra lor-



■ Alberdik 16 urte daramatza luzeran zein zabale

tu ahal izateko, bi plantazio ditu: bata Iru-
nen eta bestea Hondarribian.

Makila egiteko prozesua, mizpirondoaren adarrek makila izateko neurria dutenean hasten da. Artisauak labanaz zauriak egiten dizkio azalean mizpirari, udaberrian edo udan. Mizpira da zauri horiek



■ Makila egiteko prozesuak bi atal ditu. Mizpirondoari labanaz azalean zauriak egin ostean, moztu eta egurra prestatu behar da lehenengo

sendatzeko gaitasuna duen zuhaitz mota bakarra. Bere izerdiz zauriak estaltzen ditu, tatuaien antzeko erliebeak sortaraziz. Honela, mizpirondoak berak apaintzen du bere burua. Izerdia gelditzean, udazken edo negu aldera moztzen da adarra. Ondoren, sutan berotu, eta oraindik berde dagoela, azala kentzen zaio. Adar batzuk zuzendu behar izaten dira. Horretarako, orkoia eta soldagailuaren beroa erabiltzen dira. Ondoren kolorea ematen zaio egurrari. Kare bizia emanda lagatzen da pare bat orduz, honek egurrak berak duen tintea ateratzea sortarazten baitu: berezkoa duen tonu ma-



ALBERTO ELOSEGI

an lau metro dituen Irungo tailerlean.

roi iluna.

ESKUZ ETA ARRETAZ LANDUTAKO MAKILA. Lan hauek guztiak eginda, bi urte iragan arte ez da egur hori erabiltzen, lehortzeko denbora hori behar baitu. Egurra prestatuta dagoenean, artisauak taile-

rrean eskuz egiten ditu honi gehitu beharreko osagai guztiak. Lehenengo eta behin makilak daramatzen bi txintxolak egiteko txapa moztu eta soldatu egiten da egurrak behar duen loditasunera egokituz. Behealdeko txintxola artisauak berak apaintzen du Euskal Idazkerako hainbat elementu zizelarekin bozelduz. Honi gero lurzorua-rekin kontaktuan izango den altzairuzko punta egokitzen zaio. Goialdeko txintxolan berriz, norberak zer ipini erabakitzen du, makilaren helburuaren arabera. Artisauak bozeltzen du bertan bezeroak agindutakoa. Leku arazoan ondorioz, bertan esaldi edo atositz labur eta esanguratsua ipini ohi dira. «Hitza hitz», «Ihes etsaiak», «Nerekin inoren beldur»... dira bertan bozeldutako esaldien adibide batzuk.

Goialdeko txintxola honek antxumearen larruaz estalitako kirtena eusten du. Larruaren zerrendak egin ostean trentzatu egiten da, kirtenean ipintzeko. Honek bere azpian altzairuzko eztena ezkututzen du. Txintxolak bestalde, eskutokiari egiten dio tope. Eskutokia, makila heltzeko lekua, adar azalez eginikoa da. Garai batean idien adarretatik ateratzen zen material hau. Baina egun legediak adarren inportazioa galarazten duela eta, Bidasoaren bestaldekik ekartzen da.

Eskuen trebiaren eta inudimenaren poderioaren fruitua da makila. Horregatik eta berez dituen berezitasunengatik modako opari bihurtu da. Alberdi artisauak dioenez, «makila ibiltzeko da». Baina erregali hau jasotzen dutenek makila apaingarri bihurtzen dute maiz. Era batera zein bestera, makila zer den esateko orduan, Alberdiri bat-batean datorkio honako hau burura: «Euskaldunona da, gurea» ●

◆ IZASKUN JAUREGI



Gero tailerlean gehitzen zaizkio txintxolak, kirtena eta eskutokia.

Alberdi artisaua

Iñaki Alberdi makila egileak asetero egiten du «Loto»a, baina ez zaio inoiz egokitu. Horregatik bizi ahal izateko 400 bat makila egiten ditu urtean zehar. Horregatik eta familiarik datorkion egurrekiko sentipen eta ahalmen berezi batengatik. Jose Alberdi Arruti, Iñakiren aita, ebanisterian lanean hasi zen gerra ostean. Iñakik Maisutza Industrialeko ikasketak burutu zituen. 1980ean Bidasoaren beste aldean hainbatek makilak egitetik bizia ateratzen zutela konturatu eta makila egiteko teknika ikasteari ekin zion. Ikasitakoak balio izan dio, baina



LANDER GARRO

dioenez, «artearen egiten ikasten da».

1983an hasi zen Iñaki Alberdi makilak egitetik bizitzen. Egun Irunen du bere lantokia: 4x4 metroko gela. Lan honi ekin zionetik hainbat bezero berezi izan ditu. Aita Santuak berak ere badu Alberdiren makila. Arabako diputatuaren eskutik jaso zuen erregalia, hiru monjen beatifikaziorako, hau Vatikanora joan zenean. Eta Espainiako Erregeari, Deustuko 100. urtemuga ospatzeko Bilbora egin zuen bisitan, eman zioten bere izena zeramana. Baina makilak buruhaustek ere ekarri dizkio. Behin Guardia Zibilak makila arma bat zela esan zion, girtenaren azpiko eztenagatik. Baimenik gabe armak egitea egotzi zion. Makila arma ez baina, euskaldunon betiko ezaugarri bat zela frogatu ahal izateko txostena igorri behar izan zuen Madrilera ●